

dFERIAk 2019 edizioko kartela aurkezten du

2019ko dFERIA kartel lehiaketaren irabazlea Madrilgo Pablo Llorentearen HALO lana da. Egilearen hitzetan kartelak, boterearen ikonoa gogora ekarri nahi du, dantzariaren goraka begiratzen duen oinaren bitartez, borrokara deitzen duen ukabila irudikatu nahi da.

2019an, gai nagusia BOTEREA da. BOTEREA zerbait egiteko edo zerbait izateko ahala izan daiteke, baina Feria honetan boterearen beste adiera bati begiratuko diogu: nagusitasun hegemonikoa izateko edo aginte gorena islatzeko gaitasunari. Izan ere, ideia hori, zeina gertuago baitago norbanako baten/batzuen gainean eragina izateko trebetasunetik –eta gehienetan ez modu positiboan–, dFERIA 2019an gozatu ahal izango ditugun lan askotan dago jasoa.

Hain zuzen, botera erabiltze hutsetik botera gehiegikeriaz erabiltzera pasatzea izan da protagonista Feriaren 25 urteetan gehien txalotu diren ikuskizunetan. Eta ezin bestela izan Arte Eszenikoen hitzordu honetan ere, Arte Eszenikoak beti egoten baitira unean uneko gertaera politiko eta sozialei begira.

Hitz egin dezagun botereaz, batez ere “botere gaiztoaz”, gure errealtitatean hartu ohi dituen itxura bihurriez... Egin dezagun gogoeta hari buruz... Eta lagundi dezagun gorputzaren eta hitzaren bitartez erretrata dezaten. Bitartean, onar iezaguzue hau esatea: “dFERIA 2019 agintera!”

IZEN-EMATE DATUAK.

Azkenik, 2019 edizioko zenbait datu azpimarra daitezke. Arte eszenikoen 338 ikuskizunek eman dute izena, iaz baino 30 ikuskizun gutxiago. Ikuskizunen jatorriari dagokionez izena eman dutenetatik, 51 Euskal Herrikoak dira, **242** estatuko beste erkidegoetakoak eta gainontzeko 45ak, nazioartekoak (Argentina, Frantzia, Italia, Alemania eta Portugal, nagusiki). Azpimarratzeko datua, estatuko komunitate erkidego guztietako konpainiek parte hartu nahi dutela (Ceuta eta Melilla hiriak salbu) Guzti horietatik, 30 inguru aukeratuko ditu antolakuntzak.

Urtarrilean zehar dFERIA 2019ko programazioaren zati handien ezagutzera emango da, aurten, **martxoak 11a eta 14a bitartean** burutuko dena eta 25. urteurrena beteko duena.

Nota de prensa

dFERIA presenta el cartel de la edición 2019

El cartel ganador del concurso dFERIA 2019 es **Halo** del madrileño Pablo Llorente. En palabras del autor, el cartel evoca el ícono del poder a través de la pierna en alto de una bailarina como si se tratará de un puño alzado.

dFERIA 2019 tendrá como temática **EL PODER**, el cual también puede referirse a la capacidad de hacer o ser algo, pero en esta Feria nos detendremos más en su significado como capacidad de ejercer un dominio hegemónico o de reflejar la autoridad suprema. Y es que esta idea, más cercana a la habilidad de influir sobre uno/varios individuo/s - y, habitualmente, no de forma positiva – se recoge en muchas de las obras de dFERIA 2019.

De hecho, el tránsito del “uso” del poder al “abuso” del mismo, ha protagonizado los espectáculos más aclamados durante estos 25 años de Feria. Como no podría ser de otra manera, en una cita de las Artes Escénicas, siempre sensibles a los aconteceres políticos y sociales del momento.

Hablemos de poder, sobre todo del “mal poder”, de las sinuosas formas que adopta en nuestra realidad... Reflexionemos sobre él... Y ayudemos a retratarlo a través del cuerpo y la palabra. Mientras, permítannos, un: “¡dFERIA 2019 al poder!”

DATOS DE INSCRIPCIÓN.

Cabe destacar algún dato de la edición 2019: se han inscrito 338 espectáculos de diversas disciplinas, 30 menos que en la edición de 2018.

Por procedencias, 51 son compañías vascas, 242 del resto del estado y 51 internacionales (procedentes de Francia, Argentina, Italia, Alemania y Portugal, principalmente). Cabe destacar que compañías de todas las comunidades autónomas (salvo las ciudades de Ceuta y Melilla) desean estar en dFERIA.

Finalmente, serán alrededor de 30 espectáculos los seleccionados para la Feria.

A lo largo del mes de enero se dará a conocer el grueso de la programación dFERIA 2019 que en su 25 edición se desarrollará entre el 11 y el 14 de marzo.